

I. PARTE-HARTZE SAIOA (Iritziak Erkatzeko Saioa + Herritarren Foroa), BILBO METROPOLITARRAREN LPParen DIAGNOSTIKOARI buruzkoa

Data: 2017/05/16

Lekua: Basauriko Udaletxeko bilera-aretoa

Iraupena: 10:00-13:00 eta 18:00-21:00

Bertaratutakoen kopurua: Iritziak Erkatzeko Saioa (12) + Herritarren Foroa (22)

BFAko ordezkariak

Izena	Kargua
Ángel Anero Murga	Lurraldearen Kohesioa Sustatzeko zuzendari nagusia
Idoia Garay	Lurralde Antolamenduko Ataleko burua
Leire Zenigaoainandia	Lurralde Antolamenduko Atala
Elisa Cano	Lurralde Antolamenduko Atala
Domingo Ruiz Elua	Lurralde Antolamenduko Atala
Endika Campo	Lurralde Antolamenduko Atala

Teknikariak

Izena	Enpresa
Aitor Sarria	Estudio-K
Cristina López	Basoinsa
Ana Izquierdo Lejardi	Inguru, Ingeniería y Gestión Ambiental
Iñaki Romero Fernández de Larrea	Paisaje Transversal
Aida López Urbaneja	Inguru, Ingeniería y Gestión Ambiental
Marta Villota	Paisaje Transversal

Aurkezpen instituzionala

Ángel Anero Lurraldearen Kohesioa Sustatzeko zuzendari nagusiak eman dio hasiera saioari, bildutako guztiei ongietorria eginez. Bereziki, eskerrak eman dizkie Basauriko teknikariei, hain ahalegin handia egiteagatik, eta baita anfitrioiari ere, udalerriko udaletxean jardunaldia egiteko behar zituzten guneak prestatu eta antolatzeagatik.

Ana Izquierdo parte-hartze taldeko kideak hartu du hitza ondoren, berriz ere eskerrak eman dizkie bertaratuei, eta azaldu du, labur-labur, saioaren fase hau (diagnostiko-fasea) oso garrantzitsua dela. Hala, saioak bi helburu nagusi ditu: batetik, lantalde teknikoak **diagnostikoaren emaitzak aurkeztea**; bestetik, **diagnostikoaren emaitza horiei buruzko iritziak erkatzea**, bai teknikariekin (goizean *iritziak erkatzeko saio* bat eginez) bai herritarrekin (arratsaldean *herritarren foro* bat eginez).

Halaber, partaidetza-foroei hasiera emateko lehen saio honetan, **Aldundiko** kideek aditzera eman dute egun hartatik aurrera herritar guztiek webgune ofizialean eskura izango dutela, formatu digitalean, Bilbo Metropolitarraren Lurralde Plan Partzialaren Diagnostikoari buruzko informazio guztia.

Diagnostikoaren aurkezpena

Hurrengo 45 minutuetan, gutxi gorabehera, EstudioK-eko **Aitor Sarria** jaunak eta Basoinsako **Cristina López** andreak hitza hartu eta diagnostikoaren emaitza garrantzitsuenak azaldu dituzte.

Lan-dinamikak

Horren ondoren, Paisaje Transversal-eko **Iñaki Romero** jaunak lan-dinamika azaldu du: bertaratuak bi mahaitan banatu ziren eta mahai bakoitzak honako lau gai hauetako bitan lan egin behar zuen:

- A. Hiri-habitata: Etxebizitza, Jarduera ekonomikoak, eta Antolamenduen bateragarritasuna
- B. Alderdi sozialak eta ekonomikoak, Ekipamenduak eta Zeharkako gaiak
- C. Ingurune fisikoa eta Azpiegitura berdea, Landa-habitata, eta Paisaia eta Ondarea
- D. Mugikortasuna eta logistika, Baliabideen kudeaketa jasangarria

Mahai guztiek lau fase igarotzen dituzte:

1. Proposatutako orientazioak balioztatzea, haiek argitzea eta beste batzuk proposatzea.
2. Garrantziaren arabera lehentasuna ematea.
3. Premiaren arabera lehentasuna ematea.
4. Jarduera eta orientazio hauek lortzeko proiektu zehatzak proposatzea.

Talde bakoitzeko kideek mahaiz aldatu beharko dute bigarren fasean (txandakatu egin behar dute, bi mahaietan parte hartzeko).

Arratsaldeko saioan ([Herritarren Foroa](#)), jende asko bertaratu zenez gero, lau talde egitea erabaki zen; talde bakoitzak gai bat jorratu zuen.

Emaitzak

IRITZIAK ERKATZEKO SAIOAREN 1. MAHAIA:

- Ingurune fisikoa eta Azpiegitura berdea, Landa-habitata, eta Paisaia eta Ondarea
- Mugikortasuna eta logistika, eta Baliabideen kudeaketa jasagarria

GARRANTZI ETA PREMIA HANDIENA mugikortasun kolektiboarekin eta baliabide naturalak eta ondare-baliabideak babesteko neurrien sustapenarekin lotutako orientazioei eman zitzaion.

1. Proposamen berria: Bizikletentzako eta oinezkoentzako bideak garatzea ibai- eta/edo trenbide-ardatz zaharkituetan, hiriguneetako malda txikiagoko gune eta gune egituratzaile gisa.
Honen orde: “Bizikleta bidezko mugikortasun-ahala areagotzea, dauden trazadurak egituratuz eta osatuz, eta haien eta garraio kolektiboaren arteko truke modalak erraztuz”
2. Proposamen berria: Garraio Kolektiboaren Sarea: zabalagoa eta moldakorragoa + Dauden sareak eta lineak aprobetxatzea.
3. “Ibai-bide nagusiak ijezketagunez hornitzea, bi erabilera izan ditzaten: batetik, aisialdia; bestetik, hiribideen kontrola”
 - Bitartekoak eta erabilerak bateragarri egiteko baliabideak jarri behar direla erantsi dute.
 - Ibai-ardatzak konektore eta txirindu-mugikortasunaren hartzaila handi gisa erabiltzeko aukera proposatu dute.
4. “Automobil pribatuaren erabilera murriztea, garraio kolektiboan (~~kolektibo garbiena~~) erabilera bultzatuz”
 - “Garbiak” hitza ez erabiltzea hobe dela erabaki da, kolektibitateari lehentasuna emate aldera (autobus batzuk ez dira hain garbiak, baina kolektiboak dira).
 - Autoaren erabilera partekatua errazteko neurriak sustatzea (beste kolektibitate-modu bat da, nahiz eta ez izan hain garbia).
5. “Lurraldean atzemandako gune degradatuetan (zabortegiak, hondakindegia, industria-aurriak, harrobiak eta abar) ingurumen-hobekuntzarako jardunak sustatzea”
 - Inpaktuei dagokienez, horrelako guneek oso eragin handia izan dutela iritzi dute. Eta horrelako eragin negatiboak paisaia-araudi baten bidez (hots, paisaiaren ekintza-planen bidez) eta eskala handiagoan arintzeko aukera proposatu dute.
6. “Paisaia –kostaldekoa, nekazaritza/basozaintzakoa, meatzaritzakoa eta hirikoa/industrial– babesteko eta antolatzekeko neurriak abiaraztea”
7. Proposamen berria: Paisaia eskala handiagoak kudeatzea → Bizkaiko Ekintza Plana garatzea
 - Paisaia kudeatzea, Paisaiaren Katalogoen bitartez ezarritakoa baino eskala handiagoan. Eskala probintziaraino zabaltzea, tokiko paisaiaren eta ondarearen interpretazio orokorragoa izateko.
8. “Natura-interes bereziko esparru berriak babestea eta sare ekologikoarekin lotzea”

9. *“Igarobide ekologikoen eskualde-sare bat sortzea, eremu mugakideekin ez ezik, tokiko berdeguneen sarearekin ere jarraitutasuna izango duena”*

Honako hauek zerrendatu dituzte, **OSO GARRANTZITSU BAINA EZ HAIN PREMIAZKO** gisa:

- 10. **Proposamen berria:** Kudeaketa-erremintak sortzea, “Lurralde Zaintza” modukoak.
 - JARDUNA: Baso-ekoizpena sustatzea, energia-ekoizpena (energia-burujabetza) babesteko. Adibidez, ezpal-galdarak erabiliz.
- 11. *“Nekazaritza- eta abeltzaintza-jarduera ez deslokalizatzea, elikadura-burujabetzarako mesedegarria baita”*
 - Horren harian, nekazaritza- eta abeltzaintza-jarduerarekin loturiko araudi espezifikoak erreklamatu dituzte, jarduera horren garapena faboratzeko. Eta ez soilik araudi protekzionista bat.
- 12. *“Udalerri bakoitzak energia jasangarriarako berezko ekintza-plan bat idaztea, udalerriko energia-eredua zehaztuz”*
 - Energia-kontsumo jasangarriagoa (txikiagoa eta iturri berriztagarrien ehuneko handiagoa duena) lortzeko irizpide komun gisa, udalerri guztiek ekintza-plan bat izan dezaten proposatzea.
 - Energiari buruzko araudi autonomikoa berrikustea eta klima-aldaketa arintzeko helburua nabarmentzea.

Honako hauek zerrendatu dituzte **HAIN GARRANTZITSUAK EZ DIREN PREMIA TXIKIAGOKO** proposamen gisa:

- 13. *“Metro (~~tren~~) bidez aireportua eta Bilbo hiriko gunea lotzea, bidaiariak garraiatzeko”*
 - Proposamen hori areagotzeko, **unibertsitatearekiko** konexioaren hobekuntzak lehentasuna izan behar duela adierazi dute.
- 14. *“Tren bidez Bilboko Portua hiriguneekin konektatzea, interferentziarik gabe, salgaiak garraiatzeko”*
- 15. *“Urbanizagarriak diren baina oraindik urbanizatu ez diren nekazaritza-balio handiko lurzoruei kategoria hori kentzea”*
 - Esaldi hori argitu egin dute: “oraindik ukitu/kudeatu ez diren” lurzoruak hartuko lituzke proposamen horrek barnean, kalte-ordainengatikoa gainkosturik ez sortzeko.
- 16. *“Landaguneak zedarritzeko eta antolatzeke eta baserriak banatzeko irizpideak ezartzea, bertan behera gera ez daitezen”*
- 17. **Proposamen berria:** Legediaren ondorioz zenbait landagunek kategoria hori galtzearen arazoa aztertzea.
- 18. *“Txartel bakar bat sortzea garraio publikorako”*
- 19. *“Mendi babesleen katalogo bat sortzea, basoen kudeaketa egokia eragingo lukeen katalogo bat, hain zuzen: selektiboagoa eta ez hain intentsiboa”*
-

20. "Diru-sarrerak lortzeko beste iturri batzuk sustatzea, nekazaritza-produktuekin eta nekazaritza-turismoarekin lotutako iturriak, hain zuzen"
21. "Metropoli-eremutik kanpoko tokien (~~tokiekiko~~) eta abiadura handiko **geltoki nagusien** arteko mugikortasuna eta loturak hobetzea (~~abiadura handiko trenbidearen bitartez~~)"
- Lehenetasun handieneko helburua hiri-inguruko udalerrak Abiadura Handiko Trenaren abiapuntu-geltokiekin lotzea da.
22. "Azpiegitura berdearen eta azpiegitura 'grisen' arteko gatazka posibleak identifikatzea eta elkarreragin horiek kudeatzeko neurriak ezartzea"

IRITZIAK ERKATZEKO SAIOAREN 2. MAHAIA:

- Alderdi sozialak eta ekonomikoak, Ekipamenduak eta Zeharkako gaiak
- Hiri-habitata: Etxebizitza, Jarduera ekonomikoak, eta Antolamenduen bateragarritasuna

Hona hemen **GARRANTZI ETA PREMIA HANDIENKO** orientazioak, handienekotik txikienera ordenatuta:

1. *“Lurzoru industrialak zaharkitu eta hutsen biziberritzeari heltzea, eta horretarako kudeaketa- eta finantziazio-tresnez hornitzea”*
 - Zehaztu dute Arrigorriagan lurzoru industrial asko zatikatuta dagoela, eta arazo horri nola heldu beharko litzaiokeen/lurzoru horren birdimentsionatzea nola egin beharko litzatekeen eztabaidatu dute.
 - Benetako jarduera ekonomikoa “kasuz kasu” aztertzea proposatu dute.
 - La Basconiaren kasuan, kutsatutako lurzoru industrial huts horrek aprobetxamendurako aukera paregabea ematen du.
 - Beharrezko konponbidea da, baina diru asko eta ahalegin handia eskatzen ditu.
2. *“Erabilera bat baino gehiago nahasten dituen lurralde-eredu trinkoa sustatzen jarraitzea, bizitegi-erabilera eta jarduera bateragarriak ez ezik, hainbat jarduera ekonomiko elkarrekin ere nahasten dituen lurralde-eremua, hain zuzen”*
 - HAPON erabilera-nahasketa gehiago onar daitezela proposatu dute.
 - Hainbat jarduera ekonomiko elkarren ondoan edota bizitegi-erabilera eta hainbat jarduera ekonomiko nahastuta (“erabilera mistoak”).
3. *“Antolamenduaren arabera dentsitate baxukoak behar zuten esparruak dentsitate handiko bihurtzea”*
4. *“Edukiera handiko garraio publikoko geltokien inguruko lurzoruetan jarduera sor dadin faboratzea”*
 - Jarduera ekonomikoekin loturiko geltokiak proposatu dituzte.
5. *“Sortuko diren etxe berriak jada beharrezko azpiegiturak dituzten guneeetan kokatuta egongo direla bermatzea”*
 - Udal-garraio publikoa garraio-sare nagusiekin konektatuta egon dadin proposatzen dute.
 - Arrigorriagan geralekuak sortzea.
 - Ezin da ziurtatu, nahi bat baino ez da.
6. *“Udallerriak ekipamenduekin lotuko litzukeen sare bat sortzea, Done Jakue Bidea, Bilboko Inguruko Berdegunea, itsasoko bidea eta Bilboko Burdin Hesia oinarri gisa hartuta”*
 - Balioa emateko ideia zabalagoa izango litzateke.
 - Turismo-sareak ondare soziokulturala bil dezala eta turismo-baliabideei balioa eman diezaiela lortzea.
7. *“Bilboko itsasadarren inguruan antolamendu globala eta orekatua planteatzea, baita haren udal-plangintzen bateragarritasuna ere”*
 - Hori jada egiten ari direla seinlatu dute. Zenbait planen arteko bateragarritasuna sustatzea da horren helburua.

- 8. Proposamen berria: Eraldaketa-ardatza Bilboko itsasadarrean.
 - Itsasadarra funtzio anitzeko gune ordenatu gisa; udalerrri GUZTIETAN.
 - Itsasadarra gune global gisa; eraldaketa-ardatz bat.
- 9. *“Dentsitate baxuko zenbait guneren kategoria aldatzea (urbanizagarri izatetik landagune izatera aldatzea)”*
 - Ez dira ados jarri.

Bigarren mailako garrantziarekin, HAIN GARRANTZITSUAK EZ DIREN PREMIA TXIKIAGOKO proposamen hauek egin ziren:

- 10. *“Enplegu-eskaintzaren eta biztanleriaren arteko desoreka murriztea, premia handieneko udalerrietan jarduera sustatuta”*
 - Hirugarren mailako erabilerarako aukera izango luketen eraikinak proposatu dituzte.
 - Lan egiten duzun tokian bizitzeko aukera izatea luxu bat da, baina xedea kontrakoa izan ohi da.
- 11. *“Itsasadarra birsortzea ~~eta~~ edo aktibatzea, erabilera publikoko gune gisa balio dezan”*
 - Zenbait lekutan, konponbidea berriz naturalizatzea izango litzateke; beste batzuetan, ordea, berraktibatzea; itsasadarrek ezin du erabat naturala izan, jada oso artifizial bihurtu baita.
- 12. *“Benetan eskuragarri dauden lurzoru industrialen inbentario zehatz bat egitea, horrelako tokiak optimizatze aldera”*
- 13. *“Biztanleria zahartzen ari denez, ekipamendu ~~eta/edo etxebizitza~~ sozialen eskaria handiagotzen ari da; arazo horri erantzutea”*
- 14. *“Etxebizitza-proposamenak hiru konponbide hauetarantz bideratzea: etxebizitza hutsak merkatuan ipintzea; birmoldaketa; eta birdentsifikazioa”*
 - Konponbide positiboa dirudi, zenbait udalerritan jada zergapetzen dira etxebizitza hutsak, baina zaila da horrelako etxebizitzak merkatuan ipintzea.
- 15. *“Hiri-merkataritza bultzatzea, ~~merkataritza ekipamendu handien ordeztzea, eta merkataritza ekipamendu handien gehieneko azalera mugatzea~~”*
 - Ezin da saltoki berrien azalera mugatu, batetik, Europako direktiba dela-eta, eta bestetik, mugaketa hori ezartzea zaila delako behar adina eskaintza egonez gero.

Orientazio hauek baztertu egin ziren:

- 16. *“Hurrengo 16 urteetan lurzoru industrial berririk kalifika ez dadin sustatzea”*
 - Orientazio hori hertsiegia da eta ez dirudi egokia.
- 17. *“Garapen berrienak birdentsifikatzea eta tinkatzea, herrietako toki nagusien eta konexio hobereneko guneen inguruan zentralitate-nodo berriak faboratze aldera”.*
- 18. *“Azalera handiko industrialde berriak gara daitezzen saihestea, lurraldeko espazioa mugatua baita”*
- 19. *“Parke teknologiko berriak hirien aldameneko eremuetan eta **garraio publikoetatik gertu** kokatuta egotea ~~(derrigorrean)~~”*

HERRITARREN FOROAREN 1. MAHAIA

- Mugikortasuna eta logistika, eta Baliabideen kudeaketa jasangarria

Hona hemen **GARRANTZI ETA PREMIA HANDIENKO** orientazioak, lehentasun handienekotik txikienera:

1. *“Automobil pribatuaren erabilera murriztea, garraio kolektibo garbieraren erabilera bultzatuz”*
 - Gai hori zabaltzeko, bertakoentzako aldirietako aparkalekuak gara daitezela proposatu dute.
 - Metro-irteeretak seinaleak hobetzea proposatu dute (kale-izenen ordean, leku garrantzitsuen izenak erabiltzea: udaletxea, kiroldegia, kultura-etxea, eta abar).
 - Beste metodo batzuk ere badaudela aipatu dute, hala nola autoa partekatzea edo lan-garraioa sustatzea (Comisiones Obreras erakundeak egindako azterlan baten berri eman dute, erreferentzia gisa, aparkatze-eraztasunak ezabatzeko edo aparkatzea erregulatze).
 - Cervantes hiribidean aparkaleku gehiegi daudela komentatu dute, eta horren eraginez jendeak garraio publikoa ez duela erabiltzen, aparkatzeko tokia izango dutela seguru jakinda.
2. **Proposamen berria:** Arratiako trenbide zaharren aprobeitxamendua.
3. *“Txartel bakar bat sortzea garraio publikorako”*
 - Argitu dute tarifa bakar horrek berdintasunezkoa ere izan behar duela.
4. *“Bizikleta bidezko mugikortasun-ahala areagotzea, dauden trazadurak egituratuz eta osatuz, eta haien eta garraio kolektiboaren arteko truke modalak erraztuz”*
 - Iruzkindu dute jasangarria ez ezik, mugikortasunak eskuragarria ere izan behar duela.
 - Treneko bagoiak egokitzea planteatu dute, bizikletak eramateko aukera izan dezaten.
 - Esan dute ezinbestean konektatu behar direla ikastetxeak eta industrialdeak, eta zehaztu dute Bilbotik gertuko tokiekin hasi beharko litzatekeela; esate baterako, Basauriko trazaketei gutxi falta zaie erabat konektatuta egotea.
5. *“Udalerrri bakoitzak energia jasangarrirako berezko ekintza-plan bat idaztea, udalerriko energia-eredua zehaztuz”*
 - Informazioa argitaratu egin beharko litzateke, herritar guztiek interpreta eta balioztatu dezaten.
6. *“Tren (metro) bidez aireportua eta Bilbo hiriko gunea lotzea, bidaiariak garraiatzeko”*
 - Dauden azpiegiturak optimizatuta (esaterako, Lezamako Bide Zaharra).
7. **Proposamen berria:** Hegoaldeko trenbide-saihesbidea berraztertzea.
8. **Proposamen berria:** Renferen Basauri-Ollargan-Abando trazatua ezabatzeko aukera kontuan hartzea; batetik, eta azkenean Abiadura Handiko Trena eraikitzen bada (hegoaldeko trenbide-saihesbidea), azpiegitura tangenziala aprobeitxatuta; eta bestetik, trenak Basauriko hirigunean duen eragina ezabatuta.
9. *“Garraio kolektiboari dagokionez, plataforma eskusiboko (autobusa edo tranbia) sare zabalagoa garatzea, ordutegia fidagarriagoa izan dadin”*

10. Proposamen berria: Hiriaren eredua okerrekoa da, postalekoa. Unibertsitateetarako mugikortasuna hobetzeko eta hain industrializatuta ez dauden eta hirigunetik gertuago dauden tokietara (kasu baterako, Zorrozaurrera) aldatzeko proposamena, bizikleta bidezko mugikortasuna ez ezik, jarduera soziala eta oinezkoen jarduera ere faboratzeko.

HERRITARREN FOROAREN 2. MAHAIA:

- Ingurune fisikoa eta Azpiegitura berdea, Landa-habitata, eta Paisaia eta Ondarea

GARRANTZI ETA PREMIA HANDIENA nekazaritzarekin loturiko orientazioei eman zitzaizen:

1. *“Nekazaritza- eta abeltzaintza-jarduera ez deslokalizatzea, elikadura-burujabetzarako mesedegarria baita”*
 - Oso funtsezkotzat hartu dute: “lan egitea, jatea eta bizitzea da”; horretarako, ezinbestekotzat hartzen dute gertutasuneko nekazaritza bermatzea (bizitzarako eta kontsumorako bitarteko jasagarria den aldetik).
2. *“Urbanizagarriak diren baina oraindik urbanizatu ez diren nekazaritza-balio handiko lurzoruei kategoria hori kentzea”*
 - Nekazariari laguntzeko, hazi-bankuak eta lur-bankuak sortzea eta antzeko laguntzak sustatzea proposatu dute.
3. *“Diru-sarrerak lortzeko beste iturri batzuk sustatzea, nekazaritza-produktuekin eta nekazaritza-turismoarekin lotutako iturriak, hain zuzen”*
 - Euskal landa-munduko kultura eta ohiturak sustatzea (Bizkaiko landa-paisaia urrituen inguruko hedapenaren, hezkuntzaren eta sentsibilizazioaren bitartez).

Garrantzi-maila berarekin, baina **EZ HAIN PREMIAZKO** gisa, orokorragoa delako, sare ekologikoaren gaia jorratu zen:

- 2b. *“Igarobide ekologikoen eskualde-sare bat sortzea, eremu mugakideekin ez ezik, tokiko berdeguneen sarearekin ere jarraitutasuna izango duena”*
 - Oro har, eta baso autoktonoa birsortuz loturaguneetan.

Basoen arazoa ere lehentasunezkoa da, baina ez hain urgentea (epe luzean garatzen edo txertatzen joango den proiektua denez, helburu hori gauzatzeak ez du hainbestearainoko urgentzia).

- 3b. *“Mendi babesleen katalogo bat sortzea, basoen kudeaketa egokia eragingo lukeen katalogo bat, hain zuzen: selektiboagoa eta ez hain intentsiboa”*
 - Gunearen arabera, espezie aloktonoak harizti autoktonoekin ordeztzea proposatu da, eta bazkalekuei eustea?

Horren inguruan, askotan “bertan behera utzita” dauden mendiei (basozainik gabe, kudeaketarik gabe, eta abar) arreta handiagoa jartzea aldarrikatu da. Iritzi desberdinak egon dira “mendiak garbi eta sastrakarik gabe” mantentzeari buruzko ekintza zehazterakoan (beharbada, erabilitako hizkeran esan nahi ziren hitzetan baino gehiago azaleratu da desadostasun hori), beti ez baita egokia oihanpea ezabatzea, sute-arrisku handiagoa sor baitezake; izan ere, batzuetan egokiena justu kontrakoa dela esan da: hobe da oihanpea mantentzea (biodibertsitate handiagoa duelako), basoaren estratuak kontserbatzea (batez ere, sute-arrisku txikieneko guneetan) eta kudeaketa beste mota batzuetako jardueretan oinarritzea (adibidez, etorkizuneko aleek aurrera egin dezaten).

OHARRA: [Dokumentuan, orientazioa honela aipatzen da: “Mendi babesleen katalogo” bat sortzea. Horrek, egia esan, gehiago hartuko lituzke barnean mendi babesletzat aitortutako jabetza pribatuko

mendiak (funtzio babesleak edo gizarte- eta ingurune-funtzioak dituztelako: lurzoruen eta baliabide hidrikoen kontserbazioa, birsorkuntza, higaduraren kontrako borroka, faunaren eta floraren babesa, oreka ekologikoak eta funtsezko bizi-sistemak mantentzea, dibertsitate genetikoaren babestea eta abar). Arroen iturrietako basoak izan ohi dira (erregimen hidrikoa erregulatzen lagundu ohi dute horrelako mendiak)].

Horren ondoren, hauek dira garrantzi eta urgentzia handienekoak:

4. *“Ibai-bide nagusiak ijezketagunez hornitzea, bi erabilera izan ditzaten: batetik, aisialdia; bestetik, hiribideen kontrola”*
 - Urgentetzat hartu dute orientazio hori oso balio ekologiko handiko ibai-igarobidetzat hartzen diren ibai-zati asko degradazio handiko egoeran daudelako. Kezka handia Nerbioiko ibaiertzen egoerarengatik.
 - Horrenbestez, zenbait ekintza urgentetzat hartzen dira, hala nola ibaiartzeko landaredia birsortzea (baita “uraren zikloa babesteko eta ur-emia eta lurzoruen higadura erregulatzeko funtzioa duten basoak” birsortzea ere).
 - Bidegorriekiko komunikazioa hobetzeko aprobetxatzea.
 - Horrekin, ondare industrialaren arazoa planteatzen da, oraindik ere ibilguaren bazterretan dauden azpiegitura astunen arazoa (horrelako azpiegiturak askotan ezin dira desegin, dela kostuagatik, dela legediarengatik edo ondare-balioarengatik). Egitura jakin batzuk aztertzea proposatzen da, etorkizunean birgaitu, erabilera berriak eman eta azpiegitura berdeetan txertatzeko.
5. *“Paisaia –kostaldekoa, nekazaritza/basozaintzakoa, meatzaritzakoa eta hirikoa/industrial– babesteko eta antolatze neurriak abiaraztea”*
 - Orientazio hori oso orokorra da, eta arestian esandako guztia nolabait biltzen du; hots, paisaia ekintza horien bitartez antolatzen eta babesten da.

Beste arazo kezkagarri bat ere aipatu zuten: **zarata**. Nola arindu daiteke leku askotan errepideetatik eta azpiegiturretatik atzematen den inpaktu akustikoa?

HERRITARREN FOROAREN 3. MAHAIA:

- **Hiri-habitata: Etxebizitza, Jarduera ekonomikoak, eta Antolamenduen bateragarritasuna**

Hona hemen **GARRANTZI ETA PREMIA HANDIENKO** orientazioak, lehentasun handienekotik txikienera:

1. *“Enplegu-eskaintzaren eta biztanleriaren arteko desoreka murriztea, premia handieneko udalerrietan jarduera sustatuta”*
 - Horri buruz, iruzkindu dute ez dela parke teknologiko berririk garatu behar, ezta enplegu isolaturik ere.
 - Industria-eraldaketarako pabiloiak berrerabili egin behar dira.
 - Ohartu dira Basauri udalerriak lo-hiri bihurtzeko arriskua duela.
2. *“Bilboko itsasadarren inguruan antolamendu globala eta orekatua planteatzea, baita haren udal-plangintzen bateragarritasuna ere”*
 - La Basconiako ibaiertza aisiarako biziberritzea.
 - Guneak berriz naturalizatzea eta aisia-jarduerak berdeguneetan kokatzea.
3. *“Erabilera bat baino gehiago nahasten dituen lurralde-eredu trinkoa sustatzen jarraitzea, bizitegi-erabilera eta jarduera bateragarriak ez ezik, hainbat jarduera ekonomiko elkarrekin ere nahasten dituen lurralde-eremua, hain zuzen”*
4. *“Etxebizitza-proposamenak hiru konponbide hauetarantz bideratzea: etxebizitza hutsak merkatuan ipintzea; birmoldaketa; eta birdentsifikazioa **eta birgaitzea**”*
 - “Birgaitze” kontzeptua txertatu behar dela iruzkindu dute.
 - Eta zalantza hau azaldu dute: nola finantzatu beharko litzateke birgaitzea?
 - Basaurin etxebizitza bat eskuratzeak dakartzan arazoetan sakondu dute, etxebizitzak oso prezio altuan daudela nabarmenduta.
5. *“Sortuko diren etxe berriak jada beharrezko azpiegiturak **eta hornikuntzak** dituzten guneetan kokatuta egongo direla bermatzea”*
 - Komentatu dute hazkundeak ez direla gertatu azpiegitura berrien sorkuntzarekin batera.
 - Gertuko eskalako hornikuntzak behar dira.
 - Oinarritzakoak: garraioa, osasuna, hezkuntza eta kirola.
6. *“Antolamenduaren arabera dentsitate baxukoak behar zuten esparruak dentsitate handiko bihurtzea”*
 - Bolueta Dorreari buruz eztabaidatu dute: zentzuzkoa al da Bilbotik kanpo hain eraikin altua eraikitzea?
 - Hain eraikin altuak ez egitea eskatu dute, altuera ertainekoak baizik.

HERRITARREN FOROAREN 4. MAHAIA:

- Alderdi sozialak eta ekonomikoak, Ekipamenduak eta Zeharkako gaiak

Alderdi horiei buruz lan egin duen lantaldeari dagokionez, ez zen lehentasunik ezarri, ez garrantziari dagokionez ez premiari gagozkiola; horregatik, ez da kontuan hartu behar orientazio hauek zer hurrenkeratan dauden:

- “Biztanleria zahartzen ari denez, ekipamendu sozialen eskaria handiagotzen ari da; arazo horri erantzutea”
- “Hiri-merkataritza bultzatzea, merkataritza-ekipamendu handien ordez, eta merkataritza-ekipamendu handien gehieneko azalera mugatzea”
 - Tokiko ekoizpena eta banaketa bermatzeko, industrializazioa bilatzea proposatzen dute.
- “Parke teknologiko berriak hirien aldameneko eremuetan kokatuta egotea (derrigorrean)”
 - Iruzkindu dute lehenik eta behin lurzoru berriak okupatu behar ote diren ikusi behar dela.
- “Benetan eskuragarri dauden lurzoru industrialen inbentario zehatz bat egitea, horrelako tokiak optimizatze aldera”
- “Azalera handiko industrialde berriak gara daitezen saihestea, lurraldeko espazioa mugatua baita”
 - Hondakinak gaika biltzea, energia berriztagarrien eta energia-aurreztearen alde apustu egitea proposatu dute.
- “Hurrengo 16 urteetan lurzoru industrial berririk kalifika ez dadin sustatzea”
- “Itsasadarra birsortzea eta berriz naturalizatzea, erabilera publikoko gune gisa balio dezan”
- “Lurzoru industrialak zaharkitu eta hutsen biziberritzeari heltzea, eta horretarako kudeaketa- eta finantziario-tresnez hornitzea”
 - Hiri biziberritzearen/birgaitzearen aldeko apustua egin behar dela komentatu dute, lanpostu gehiago sortzen dituelako.
- Proposamen berria: Jarduera ekonomikoak, industriak eta ikastetxeak birlokalizatzea.
- Proposamen berria: Hiri-antolamendua arautzea eta harekin bidezkoak izatea, eta udalei ez uztea nahi dutena egiten.